



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, FORU-DEKRETU HONEN PROIEKTUARI BURUZKOA: FORU DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ ALDAKETAK SARTZEN BAITIRA PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ETA SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGAREN ARAUDIETAN.

29/2017 Foru Dekretuak (maiatzaren 23koa, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen) bere I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia, azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) Arauaren helburuak,
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, jakitearren zer iritzi duten egitekoa den xedapenak eragingo dien herritarrek eta ordezkariak erakundeei; xedapenak arau esparru berri bat ezarri nahi du, eragiketa lotuetarako balorazio proposamenekin zerikusia duten informazio betebeharrak direla-eta.

Herritar, erakunde eta elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, irailaren 20ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	40/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren araudia onesten duena, eta 41/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa, sozietateen gaineko zergaren araudia onesten duena.
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Aurrerago aipatzen diren helburuak lortu nahi dira.
HURA ONARTZEKO PREMIA ETA AUKERA	Proposatutako helburuak lortzeko beharrezko irizten zaizkion aldaketak sartu nahi dira.
XEDEAK	<p>Prozedura honetan egin nahi den Foru Dekretu honen helburuak dira:</p> <p>Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiaren eremuan:</p> <ul style="list-style-type: none">-Doikuntzak egitea konturako diru-sarreraren arauketan, harpidetza eskubideak eskualdatzen diren kasurako, batez ere atxikipena egiteko betebeharra entitate gordailuzainari dagokionean.-Ekarpenak itzuliz edo jaulkipen sariak banatuz egiten diren kapitala murrizteko eragiketen gaineko informazioa emateko betebeharra dute eragiketa horietan parte hartzen duten subjektu pasiboek; bada, foru dekretu proiektu honen bidez, aldatu egin nahi da betebeharraren hori. <p>2. Sozietateen gaineko Zergaren Araudiaren eremuan:</p> <ul style="list-style-type: none">-Atxikipena egiteko betebeharraren salbuespen kasu berriak ezartzea.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Azaldutako helburu horiek gauzatzeko aukerarik egokiena dela jotzen da.